Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

6216

AGINDUA, 2009ko urriaren 28koa, Kulturako sailburuarena, 2009. urteko «Euskadi» literatura saria –haur eta gazteentzako euskarazko literatura modalitateari dagokiona– ebazten duena.

Kulturako sailburuaren 2009ko apirilaren 30eko Aginduaren bidez (2009ko maiatzaren 19ko EHAA, 93. zk.), Euskadi literatura saria, haur eta gazteentzako euskarazko literatura modalitateari dagokiona, arautu eta horretarako deia egiten da.

2009ko apirilaren 30eko Aginduaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta berariaz zeregin horretarako 2009ko ekainaren 25ean emandako agindu bidez (2009ko abuztuaren 7ko EHAA, 150. zk.) izendatutako epaimahaiak egindako proposamena ezagutu ondoren, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– 1.– Epaimahaiaren proposamena ikusita, 2009ko Euskadi literatura saria, haur eta gazteentzako euskarazko literatura modalitateari dagokiona, Ruben Ruiz Perez jaunari ematea, 2008an Pamiela argitaletxeak argitara emandako «Anekdotak» izeneko literatura lanagatik.

2.– Sarituak, 2009ko apirilaren 30eko Aginduaren 2. artikuluaren arabera, 18.000 euro jasoko ditu. Era berean, 4.000 euro jasoko ditu goian esandako aginduan begiz jotako egitekoak egin ostean.

AZKEN XEDAPENA

Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke Kulturako sailburuari, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean. Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, dagokion gelan, esandako egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 28a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

6216

ORDEN de 28 de octubre de 2009, de la Consejera de Cultura, por la que se resuelve el premio literario «Euskadi» en su modalidad de literatura infantil y juvenil en euskera, en su edición de 2009.

Mediante la Orden de 30 de abril de 2009, de la Consejera de Cultura (BOPV n.º93, de 19 de mayo de 2009), se convoca y regula el premio literario Euskadi, modalidad de literatura infantil y juvenil en euskera.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 7 de la Orden de 30 de abril de 2009, y una vez conocida la propuesta hecha por el jurado nombrado al efecto mediante Orden de 25 de junio de 2009 (BOPV n.º 150, de 7 de agosto de 2009).

RESUELVO:

Artículo único.– 1.– Vista la propuesta del jurado, conceder el premio literario Euskadi en su modalidad de literatura infantil y juvenil en euskera, en su edición de 2009, al Sr. Rubén Ruiz Pérez por su obra titulada «Anekdotak», editada en 2008 por la editorial Pamiela.

2.– El ganador percibirá, de acuerdo con lo establecido en el artículo 2 de la citada Orden de 30 de abril de 2009, 18.000 euros. Asimismo, podrá percibir la cantidad de 4.000 euros una vez ejecutadas las acciones previstas en la orden de referencia.

DISPOSICIÓN FINAL

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el BOPV, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de octubre de 2009.

La Consejera de Cultura,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.